

**K
a
r
m
e
l
h
e
t
a
e
u
s
k
e
r
a
n
t
o**

Garbi asko ikusi dugu nolako ongi etorri berezia egin zaion euskal-sukaldetan «KARMEL» aldizkariari bere ageraldi berrian.

Oneitxek berotzen du eta indartzen gure barnetan aspaldin jaio zen euskal-erriarenganako eta eliza amaren-tzako miña, maitasuna.

ESKERRIKASKO!!!..... eta jarrai denok zintzoki «KARMELEN» babesean euskaldun eta fededun, naiz... «betor luzifer deabrua utzirik inpernua».

Zoritxarrez, nor errudun, Jauna?, zoritxarrez, gaur gure artean, euskaldunen artean, burruka xebrerik bai da franko. Eta burrukalariak, kolore batekoak eta beste-koak, denak, gurdia euren bidera eraman naita dabilz. Zarrak eta gazteak. Aurrelariak eta atzelariak.

Aurrelariak, bere, jokoa, dejadaka, bi-paretata (euskeranto), besagainka, al dala beti aurrera, txokora edo zabalera.

Atzelariak, zartadaka, zortzira, zazpira, atzeko kua-droetara (euskeranto) noizka, ezkerrez, azpitik zabalera.

Dena dela, KARMELEK bere postura (euskeranto) gar-biro azaldu zun aurtengo lenbiziko alean.

Ziurki, errespetatua nai ditugu zarrak, eta onekin esan nai dugu, errespetatuko ditugula (ERRESPETATU itza-berba euskeranto utsa baita, emendik aurrera beste jos-kerak au erabilliko dut, «ONTZAT ARTU» eta onekin esan nai dugu ontzat artuko ditugula zaarren iritziak, esaerak, izketa, idazkiak, argi-bideak, oar-onak...

Baita ere, ontzat ar nai ditugu gazteen miñak, gazteak eutsi bear bai dio erriari, elizari. Noski, ezin ukan, pozik aitortzen degu, zaarrek ere bai dute zer ikusirik eta zer esanik gai ontan eta gure erriko beste gai guztietan ere.

Jainkoa lagun, ez dugu au iñoiz uka, ukatuko ere ez zaarrek egiña bai dugu gure erri zaar au. Zaarren oar-onak gozatuko al ditu «KARMELEN» ametsak eta letrak!!!



Onegatik, ez bildurrik izan, irakurle gure anai erriaren eta elizaren onerakotik, Berri-aretan (euskeranto arraioa) bestala, berri-aretan (euskeranto) bezala euskaldunak berri-aretan kantari...

Euskaldunok alkarren onean ez beldurrik izan, joka bear ote du gure onean? Ik, euk, dukakela arrazcia? Bejontak... orri! Bañan azpi lanean asi besteak eta... eta naiak eta maitasunak apurtzen...? Euskerantok dar pizkat daukakela (auskalo...)? Euskerantok arrika jartzera zirikatatu...? Onekako legerak... Kristoren legean ikusi. Ori duk...? Ori duk...? Ori duk... aundiak txikia irintsiko dik». Ori duk...? Ori duk... «I ixillik».

Erreza da, sarritan egiten duguna da... norberaren probetxurako (euskeranto) edo on-tzea. Etsaiak, marxista-leninista-mao-ista-gorriak gurdietan jarri eta «jainkoa» patxada-patxadaz ren karroza (euskeranto) aundi ederrean...!!!

Olako gerra santarik...!!! Olako kruzadarik...!!!
 Gerra ori, atxerena, gerra au, euskera batuarena, burruka au, euskerantona (euskeranto madarikatua) jakintsuen eskuetan uzten dugu. Guk erriarentzat itzegin nai dugu, askotan asmatu ez arren. Erriaren eta eliza amaren indarra eta arnasa eta espiritua baster guzietara emanda zabaldu nai dugu. «H» koxkor batek, min biziaren antzera, polliki-polliki edo azkar-azkar, jan bear ote ditu euskalduntasunaren mamiak, euskeraren muiñak?

«H» koxkorra dalata, txorimalotzat, gorritzat, artu bear ote ditu eliztarrak letra onen maitaleak? Makiña bat gorri baida ordun euskal-apaiz-pralle-monjetan... Onela pentsatzen dutenak, ez diote arrazoi makala ematen «Que pasa» delako erdal-aldizkarian idazten duten gure etsaieri.

KARMELDARROK, arren, ez bildurtu. Irakurri lasaiki aldizkaria Eman eta zabaldu euskalerrian barna. Garbia da!!! Garbia euskeran!!!

Beitu, beñ, Mexikotik Beistegitar Jonex zer zion. «Zure aldizkariok (Karmel eta Olerti, alegia) ezagunak doguz emen eskerrak San Martin adizkide maiteari eta atzenengo lerroraiño irakurri eta aztertuak izaten dira gure artean. «Melo'renak izaten dira guretzat ikutugarrienak, erbeste-ratuak gara ba gu be».

(Aita Onaindiari egiña da karta. Ikus... «Olerti», II'gn urtea 1960 urtarilla-epailla).

Irakurleok, «Melok» ba du zer ikusirik aldizkari onetan eta ziurki, ikutuka-ikutuka, elizaren eta erriarenganako maitasuna, aizkuraz, berotuz arituko zaizue. Noski!!! Fedean ere garbia duzue.

«H»ren eta euskerantoren burrukak «jakintsuen» buru eta eskuetan lagatzen ditugu.

Oarra. Bear bada H'dun idazkirik ez duzue gaurkoan billatuko. Leikena. Bañan, ots! Papel zaarren ontziskara ez dugu «H»dun idazkirik bota. Ots!!! Lengoan ere etzen gauza aundirik. Ez beintzat gizona zoratzeko añean. Gaurkoan... Irakurri lasai «KARMEL».

Bukatzeke, H dala ez dala, auxe garbi azaldu nai dugu oarrean; Gizonaren askatasuna eta iritziak «errespetaga-

rriak» (euskeranto) bai dira, maitasunez, burrukalari jarri gabe, ori jakintsuen lana, ontzat artuko direla. Gurea da euskera garbian aritzea. Amagandik ikasi genduan euskeran. H koxkor-biurria, pake-garai onetan ere, koxkorrekoka ibilliko ote zaigu?

I.



Euskalerriko burni-denda

FERRETERIA UNCETA, S. A.

E I B A R

Tel. 71 10 00 (Bost linea)

Teleg. "Ferrunceta"

Apdo. 18

Ibarrecrus, 14